



ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

Arnasestuka

Bizitza darie mendiei. Udaberritu egin dira basoak. Sugandila baten isats bihurria ikusi berri dut sastrakadi batean ezkututzen. Kukuarenaren faltan, okilaren mokoak enberraren aurka jota sortzen duen hots erritmikoa entzuten da urrutian. Basalandareak eta aihen-belarrak indartsu hazi dira gorantz, hodeietara ailegatzeko ahalegin ezinezkoan. Sekula ikusi ditudan lorarik ederrenak hazi dira lahar nahasien artean; moreak dira, eta laranja biziak. Marrubi txikiak ere hasi dira apurka heldzen; gorritzen.

Azeri buztana da neurez identifikatu eta izendatu dezakedan landare bakarrenetarikoa. Zuhaitz sendoenen hostoek eguzki-izpiak galbahetzen dituzte pasaeran, eta hor nonbait geldituko zen agian aurreko bi belaunaldietatik guganainoko jauzian desagertu den jakinduriaren zati bat.

Zentzumenak zolitu zaizkidala nabaritzen dut; birikak ireki zaizkidala eta leku gehiago daukadala orain barrunbe torazikoan. Inork gonbidatu ez nauen arren, gustura sentitzen naiz usain, soinu eta kolore festa honen erdian. Behar nuen pixkanaka guztia neurtzeari uztea; ordutegi eta distantzia mugak malgutzen hastea. Behar nuen lasaitasun hau. Behar nuen arnasa.

Lagun batekin noa iratze berdez inguratutako bidezidor batean barrena;

isilik, bakoitza bere baitara murgilduta. Goitik behera zetorren gizon bat gurutzatu dugu. Bakarrik zihonan bera. Gaur gurutzatu dugun bosgarren gizona da. Oinez nahiz lasterka, mendian zehar bakarrik zihonan bosgarrena.

“Egun on!” esanez agurtu gaitu eta beherantz jarraitu du korrika bizian. Pentsamenduak bizitu eta mendi buelta bat egitera bakarrik joan nintzen azken aldia gogoratu nahian hasi naiz. Mendi-bideren batean emakumeren bat bakarrik ikusi nuen azken aldia oroitu nahian, ondoren.

Diapositiba itxurako irudi batzuk etorri zaizkit burura. Neska bat ageri da korrika hauetan; bidexka izkina batean agertu den gizonak ikaratu duen neska bat, mendian behera inoizko bizkorren doana. Une hartatik aurrera bakarrik paseatu behar duenetan leku oso ezagun eta zabaletara soilik joango dena. Piztiak noiz agertuko, beti atezuan egongo dena.

Munduaren erdiari gauetan etxerakoan beldurrak sabela atximurkatu ohi diola salatu izan dugu. Ausartak baino askeak izan nahi genukeela oihukatzen dute pintadek. Egun argiz ere bai. Bakar-bakarrik goazenean ere bai. Bidezidor galduenetan ere bai.

Oraindik ere, munduaren erdiak arnasa arnasestu bilakatu ohi dio munduaren beste erdiari. ●



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Digitalki deskonektatzeko eskubidea

Kolpetik etorritako telelanaren gaineko lehen ikerketak argitaratzen hasi dira. Horien emaitza batzuk irakurri ditu O.-k, lankideek aspaldi eraturako WhatsApp taldean. Gaiak sortutako mezu trukean denak sutsuki ados daude ondorio nagusi batekin: pandemiaren ondoko munduan, ziurgabetasuna ziurgabetasun, digitalki deskonektatzeko eskubidea bermatu beharko da.

Beste kontu batean ere bat etorri dira O.-ren lankideak: pertsonaren ongizatearen ikuspegitik, hainbeste ordu emateak pantaila bat(zu)en aurrean ondorio jakinak ekarriko ditu luze gabe, fisikoak

zein emozionalak. Zerrenda bat egitera animatu da, halako batean, taldeko bat: ikusmen arazoak, obesitatea, estresa... Azken hori, beste lankide batek zehaztu nahi izan du: “Dagoeneko frogatu dute bilera telematikoek aurrez aurrekoek baino askoz gehiago nekarazten dutela burmuina, komunikatzeko modu horrek berez dakarren tentsioagatik”.

Pasatua da guerdia. Duela minutu bat sartu da taldeko azken mezua O.-ren saketakoan. Ez du irakurriko. Deskonexio digitala errespetatzea eskatu behar(ko) zaie enpresei eta administrazioei. Eskubide horren aldeko lankideei. Nork bere buruari. ●